

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Egunerokoa aldatzea normaltasuna aldarrikatzeko

Plastikozko poltsen ehun bat girlanda jarri dira gaur, osteguna, Iruñeko Munduaren Parkearen iturrian; Osasun Mentaleko Errehabilitazio Klinikako pazienteek egindako proiektu artistikoa da, eta Ana M^a Sanz zentroko Hasierako Lanbide Prestakuntza Bereziko Programako ikasleen laguntza jaso dute

Jueves, 17 de marzo de 2016

Birziklatutako plastikozko poltsen ehun bat girlandek estaltzen dute gaurtik aurrera Iruñeko Munduaren parkeko iturria (600 metro luze, guztira); haren helburua herritarrak sentsibilizatzea eta buruko gaitz bat duten pertsonak gizartean parte har dezaten aldarrikatzea da, sarritan seinatuak izaten diren estigmatik urrun.

Instalazio artistiko hori "Colores al viento" izeneko proiektu baten barnean dago, eta Nafarroako Gobernuaren Osasun Mentaleko Errehabilitazio Klinikako paziente eta profesionalak egiten dute, Alicia Otaegui sortzaileak koordinatuta.

Azken urtean, pertsona horiek elikagaien milaka bilgarri jaso dituzte, uraza, litxarrera, lekale, kafe edo moldeko ogiaren bilgarriak, adibidez. Poltsa horiekin bolak egin dituzte eta, ondoren, girlandak osatzeko lotu egin dira.

Jarduera honetan, Ana M^a Sanz zentroko Bulego Laguntzailearen Hasierako Lanbide Prestakuntza Bereziko Programako ikasle desgaituek ere parte hartu dute, eta materialaren bilaketan lagundu dute sustapen-bideo bat eginez, "[Saguzar efektua](#)" izeneko.



"Colores al viento" izeneko instalazio artistikoak Iruñeko Munduaren parkeko iturria estaltzen du.

"Colores al viento" proiektua Osasun Mentaleko Errehabilitazio Klinikak duela bost urtetik egiten duen "Oztopoak apurtuz" programaren barnean sartzen da; haren helburua buruko gaitza duten pertsonen bizitako estigmaterekin amaitzea da. Alde horretatik, azken urteotan, bertako paziente eta profesionalak komunitate-proiektuetan parte hartu dute, esaterako: [Artisten auzoa](#) (2014 eta 2015 urteetan) edo [Nafarroako Komiki Azoka](#) (2015), bai eta Iruñeko [Civivox Jus la Rochari](#) lotutako jarduerak dituzten erakusketetan ere.

Errehabilitazio Klinika

Errehabilitazio Klinika Osasunbidearen zentro bat da, eta Osasun Mentaleko kudeatzaitzaren mende dago. Gehienez buruko gaixotasun larria duten 60 pertsona artatzeko ahalmena du, 17 eta 65 urte artekoak. Hiru tratamendu-programa ditu, haietako bi ospitaleratzearekin eta hirugarrena, eguneko zentroko araubidean.

Iruñeko Atarrabiako etorbideko 53. zenbakian dagoen zentroa 2001ean inauguratu zen. Diziplina anitzeko arreta espezializatua eskaintzen du, gaixoberritzeak prebenitzeko eta pazienteen autonomia- eta integrazio-maila ahalik eta handiena lortzeko asmoz.



Errehabilitazio Klinikako pazienteak girlandak prestatzen, Alicia Otaegui alboan dutela.